

17,5 km
2h 17m

PEÑA DE UNZUÉ

UNTZUEKO HAITZA

¿LA CIMA MÁS BONITA DE LA ZONA MEDIA?

Decir que algo es “lo más bonito” es meterse en un lío; pero con esta montaña pocas personas dudan de esta afirmación. Su esbelta figura rocosa es visible desde muchos lugares y su ascensión, aunque corta, es empinada y a ratos incluso dura. La ruta transcurre por un estrecho sendero entre bojés, encinas y enebros. Las vistas desde la cima compensarán el esfuerzo.

La Peña Unzué (990 m) es probablemente la montaña más emblemática y bonita de toda la Zona Media, visible desde buena parte de la comarca. Aunque es la cumbre de menor altura de la Sierra de Aláiz, resulta fácilmente identificable por sus grandes paredes de roca caliza y su silueta casi piramidal, por lo que es una de las ascensiones senderistas más conocidas y frecuentadas de Navarra.

La ascensión a la Peña Unzué es relativamente corta pero dura, con rampas muy empinadas en algunos tramos, por lo que se requiere una mínima forma física para su recorrido. Comienza atravesando el bonito núcleo urbano de Unzué y continúa en constante subida, primero por camino y luego por un estrecho sendero entre encinas, bojés y enebros. El sendero primero asciende de manera muy directa hacia la Peña, pero en su parte superior se suaviza y acaba bordeando las paredes por la derecha, para acabar accediendo a la cumbre por el este.

En la cumbre disfrutaremos de unas vistas espectaculares en todas las direcciones. Además, en la cima existió un castillo del que se tienen referencias desde el año 1300 y del que apenas quedan los restos de un torreón, recientemente consolidados.

ERDIALDEKO GAILURRIK POLITENA?

Zerbait “politena” dela esaten dugunean, istilu ederrean sartuko gara; baina, mendi hau ikusirik, jende gutxik jartzen du zalantzan hori. Izan ere, toki askotatik ikusten da itxura lerdin arrokatsu hori, eta igoera laburra bezain pikoa da, tarteka gogorra ere bai. Ibilbidea ezpel, arte eta ipuruen arteko bidexka mehar bat da. Gailurreko ikuspegiak gure ahaleginaren saria izanen dira.

Untzueko Haitza (990 m), ziurrenera, Erdialdeko mendirik ospetsuen eta politena da eta eskualdeko toki gehienetik ikusiko dugu. Alaitz mendiko tontorrik txikiena izanik ere, aise antzematen diogu, kareharrizko horma handiak dituelako eta ia piramide-itxura duelako; hortaz, Nafarroako igoerarik ezagunenen eta jendetsuenetakoa bat da.

Untzueko Haitzerako igoera labur samarra baina latza da, aldapa arras maldatsuak baititu tarteka; beraz, gutxieneko sasoi fisiko bat beharko dugu hara igotzeko. Hasteko, Untzueko hirigune polita gurutzatuko dugu. Gero, igoera etengabea da; lehenik, bidean gora eta, gero, arte, ezpel eta ipuruen arteko bidexka meharrean goiti. Bidexka, lehenik, oso era zuzenean igotzen da Haitzerantz, baina goialdean leundu eta, bukaeran, malkorrak eskuin aldetik inguratzen ditu; azkenean, ekialdetik igotzen da tontorrera.

Kaskotik, ikuspegi ikusgarriak gozatuko ditugu inguruz inguru. Gainera, tontorrean gaztelu bat egon zen; agirien arabera, 1300 urteaz geroztik. Egun, dorre baten aztarnak baizik ez dira gelditzen, berrikitan finkatuak.

Punto de inicio / Abialekua: Unzué, aparcamiento para visitantes justo antes de llegar a la localidad

Desnivel positivo acumulado / Desnibel positibo metatua: 360m

Porcentaje de sendero / Bidexka ehunekoak: 65%

MIDE: 2 - 2 - 3 - 2

